



Peru Abarka Album lehiaketa 2013

Idazleen oinarriak

1.- LEHIAKETA

Album lehiaketa bi ataletan dago banatuta. Lehendabizi narrazio onena aukeratzeko lehiaketa egingo da, eta ondoren, aukeratutako narrazio hori ilustratzeko proposamenik onena aukeratuko da. Ondoko oinarri hauek arautzen dute narrazio lehiaketa.

2.- LEHIATZAILEAK

Lehiaketa honetan 18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte.

3.- KATEGORIA, IPUINEN GAIA, HIZKUNTZA, GENEROA ETA LUZERA

Kategoria bakarra izango da: helduentzako literatura.

Ipuinak euskara batuan aurkeztuko dira.

Gaia librea izango da, eta ipuinak originalak, argitaratu gabeak eta beste inongo lehiaketan saritu gabeak izango dira. Azken hori ziurtatzeko egileak zinpeko adierazpena egingo du, baldin eta haren lana lehiaketa honetan saritua bada.

Prosaz zein bertsoz idatzia.

Narrazioek gehienez 12.000 karaktere izango dute, eta gutxienez 9.000 (espazioak barne).

4.- LANAK NOLA AURKEZTU

Lanak honako formatu honetan aurkeztuko dira: DIN-A4 tamainako orrietan, ordenagailuz eta alde bakarretik idatzita, lerrotik lerrora 1,5 aldea utziko da eta *Times New Roman* izeneko letra mota erabiliko da, 12 puntukoa. Orriak zenbatu egingo dira, eta orrialde guztietan adieraziko da lanaren izenburua.

Kopia bakarra aurkeztuko da gutun-azal itxi batean. Gutun-azal horretan ez da egilearen izena ipiniko, titulu edo ikurriz bat baizik. Titulu edo ikurriz berbera idatziko da lanaren orri guztien buruan. Gutun-azalaren barruan, titulu edo ikurriz berbera duen beste gutun-azal bat sartuko da. Bigarren gutun-azal horren barruan adieraziko dira egilearen datuak: izen-deiturak, telefono zenbakia, jaiotze-data eta helbide osoa. NANaren fotokopia bat ere sartu beharko da.

Lehiatzaileek gehienez ere bina lan aurkez ditzakete.

Epaimahaiak ebazpena emandakoan, lehiatzaileek hilabete bateko epea izango dute aurkeztutako lanak berreskuratzeko. Irabazle ez diren lanen jabetza egileena beraiena da.

5.- NON ETA NOIZ AURKEZTU

Lanak Markina-Xemeingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkez daitezke, bai eta postaz bidali ere honako helbide honetara:

Markina-Xemeingo Udala
“Peru Abarka Album Lehiaketa 2013”
Goiko Portala 3
48270 Markina-Xemein. Bizkaia

Lanak aurkezteko epea zabalik egongo da **2012ko abenduaren 6tik 2013ko urtarrilaren 25era arte**.

6.- LANEN JABETZA

Udalak bere egingo du sarituaren lanaren jabetza 1. ediziorako, eta argitaletxeari emango dio.

Narrazio irabazlea aukeratu ondoren ilustrazio lehiaketa jarriko da martxan.

Horretarako, testu irabazlea gaztelaniara itzuliko da. Behin-behineko itzulpen hori ez da argitaragarria izango, funtzio bakarra lehiaketan parte hartuko duten ilustratzaileentzat lagungarria izatea baita.

Narrazio irabazlea, eta horren behin-behineko itzulpena, eskuragarri izango dira lehiaketaren web-orrian: www.peruabarka.com

7.- SARIA

Irabazle bakarra egongo da eta **1.700 €** jasoko ditu. Horrez gain, lana argitaratu egingo da album formatuan.

8.- EPAIMAHAIA

Lehiaketari buruzko erabakia eta epaimahaikideen epaitza irabazleari zuzenean emango zaio jakitera. Gainontzeko parte hartzaileei eta komunikabideei ere jakinaraziko zaie.

9.- BESTE ARAU BATZUK

Lehiaketa honetan parte hartzeak berez dakar oinarri-arau guztiak onartzea. Antolatzaileek, lehiaketaren onerako egoki iritziz gero, behar beste aldaketa egin dezakete arauotan. Halaber, zaindu egingo dituzte aurkeztu diren lanak, baina ez dute horien erantzukizunik edukiko. Lanek maila nahikoa ez dutela erabakitzen bada, saririk ez ematea erabaki liteke.